

Buruntzazpi txirrindularitza eskola sortu da

Lasarte-Oria eta Usurbilgo haurren txirrindularitzarako zaletasuna bultzatu nahi du *Bazpi* eskolak

“Kiroi disziplina barneratu nahi diegu Lasarte-Oria eta Usurbilgo haurrei eta txirrindularitzarako zaletasuna bultzatu”, dio Alex Urkiola *Buruntzazpi*, *hastapen eta etekin handiko txirrindularitza* eskolako presidentek. Asteazkenean eskaintako prentsaurrekoan azaldu zuen bezala, “eskolak ziklokrossa eta BTT uztartu nahi ditu batez ere. Baina errepidea ere ukituko dugu.”

Laguntza

Urkiolak azaldu zuenez, Rural Kutxa, Urbil merkatal zentroaren eta Lasarte-Oria, zein Usurbilgo udalen laguntza izan du *Bazpi* eskolak.

Rural Kutxak ekipamendua jarriko du, Usurbilgo Udalak gihartze gela, Lasarte-Oriakoak bulegoa eta Urbilek lasterketa egunetan errepidea eta parkina. Honetaz gain, ziklokros pista iraunkorra egin nahi dute Froilan Elespe parkea eta Urbi-

len arteko zelaian, beraz, udalei lur eremu hori erabiltzeko eskaria egin zaie.

Maila desberdinak

Haur, heldu, neska edo mutila izan eskolak ez du desberdintasunik egingo. Honela, eskolak hiru talde nagusi izango ditu, hastapeneko, federatua eta hirugarrena zikloturistena.

Bazpi eskolako hastapen maila 8 eta 12 urte artekoen eskolaz kanpoko jarduera bezala aurkezten da. Hauekin txirrindaren erabilera landuko da. Horretarako, ginkana zirkuituak antolatuko dira Usurbilen eta Lasarte-Orian bertan.

12 urtetik 17rako gazteek federatuen taldea osatuko dute eta Ramon Unanue zuzendaritzapean egongo dira.

Zikloturista taldea beste taldeetan bezala arautua egongo da eta taldeak prestatutako, zein haiek nahi dituzten laster-



Xabier Carbayeda, Alex Urkiola, Aitor Urruzola, Txelo Sanchez eta Santi Eizagirre *Buruntzazpi* eskolaren aurkezpenean.

ketetan parte hartu ahalko dute. “Inplikazioa eskatuko diegu,” aipatu zuen Alexek.

Kuota eta izena ematea

Eskolaren kuota 8 eta 12 urte arte-

koentzat 50 euro izango da eta 12 urtetik gorakoena, 100 euro.

Honetaz gain, udalen eta Rural Kutxaren eskakizunei erantzunez, kiroldegiko bazkide izan eta Rural Kutxan

kontua ireki beharko dute.

Bazpi eskolan izena emateko *Kima* eta *MKL* dendan aurkitu dituzte orriak. Informazio gehiagorako deitu 686 317 750 telefono zenbakira. •

Din, dan, don Gabonak datoz

Gabonak aste bete aurreratu dira eta errudunak Lasarte-Oriako Musika eskolako ikasleak izan dira. Asteartean, estilo desberdinetako Gabon abestiek egun berezi horietako giroa ekarri zuten Manuel Lekuona Kultur etxeko aretoara. *Haur eder baten bila*, *A la nanita nana*, *Let it snow* edo *Jingle Bells* eta instrumentu anitz eta berezien doinuak, bihuela, tiorba edo tronpeta hirukotea esate baterako, helburu bakarrarekin Gabonetako alaitasuna eta izpirituua Lasarte-Orian zabaltzekoa. Horretarako, gainera, bukarran, ikasle guztiek ikusleekin batera *Oiloak kanta kantari* abestu zuten. •



KULTURA ■ 3

Igande goizean ospatuko da Santo Tomas jaia Okendo plazan

KULTURA ■ 3

Danok Kidek antolatuta Fco Escudero musika kontserbatorioko emanaldia

ERREPORTAJEA ■ 5

Jostun ikastaroan euskal jantzi tradizionalak egin dituzte



ANAIAK

JANTZI-DENDA

Kale Nagusia 25 · Tel.: 943 362386
LASARTE-ORIA



Zorion-agurrak



Oier

Zorionak! 25ean 3 urte! Segi buzeatzen Pirata!!!



Aintzane

30, 20, 3, 2, 1, azkenean! Zorionak, langostino! Ama eta Arkaitz



Ane

Zorionak eta 12 muxu famili guztiaren partetik.



Eneritz

Zorionak printzesa! Berandu bada ere muxu handi bat! Familiaren partetik.



Jon eta Kari

Zorionak, guraso berriei! Muxu handi bat hiruroi familia eta lagunen partetik.



Ibone

Zorionak!! Badakizu zeintzuk garen. Txokolatezko musu pottoloak

Jaiotzak

Unax Ortega Castro, abenduaren 14ean
Zuhaitz Nuñez Moreno, abenduaren 12an
Jon Azpiroz Valencia, abenduaren 11n
Lucía Muiños Gonzalez, abenduaren 11ean
Ander Gonzalez García, abenduaren 9an



Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioa

• Pisu bat alokatzen da Lasarte-Oriako erdigunean. Abala eskatzen da. Tel.: 686 674 552.

Salerosketak

• Bigarren eskuko teklatu bat erosiko nahi dut: sentsibilitateduna, kontrapixudun tekladuna eta gutxienez bost "oktava" dituen. Goizetan deitu 943 36 78 71 telefonora, Amaia.

Lan-eskariak

• Klase partikularak ematen

Oharretarako:

943 366858 • Geltoki kalea 4
txintxarri@ttakun.com • txintxarri@ttakun.com
www.txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com

ditut, matematika eta estatistika, edozein mailan, esperientzia handia. Tel.: 646 717 676.

• Neska bat eskaintzen da haurrak, adineko pertsonak zaintzeko, garbiketarako. Interna moduan edo orduka. Tel.: 620 036 888.

• Neska arduratsua bat eta lanerako gogoarekin eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko, garbiketarako eta haurrak zaintzeko. Interna moduan edo orduka. Tel.: 690 304 683.

Bestelakoak

• Negozio informatikoa traspasatzen da. Tel.: 943 36 08 32.

Telefonoak

Osasuna /Larrialdia

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA ... 943 370000
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltzainak ... 943 362442
Ertzaintza ... 943 288888
SOS Deiak ... 112

Udala

Erregistroa ... 943 376055

Euskarako Zerbitzua 943 376184
Kirolegia ... 943376182
Kulturetxea ... 943376181
Bakezko epaitegia ... 943371629
Zerbitzu Sozialak ... 943376179
Zentro Zibikoa ... 943363958
KIUB ... 943361605
Udal eskualtegia ... 943361621
Obrak eta zerbitzuak ... 943 376180

Guardiak

Ostirala, 19

Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Larunbata, 20

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Igandea, 21

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Astelehena, 22

Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567

Asteartea, 23

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Asteazkena, 24

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Osteguna, 25

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Ostirala, 26

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Larunbata, 27

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Igandea, 28

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Astelehena, 29

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Asteartea, 30

Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567

Asteazkena, 31

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Osteguna, 1

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774



www.gipuzkoangazte.info

Udaltzain lanpostu bat Usurbilgo udalerako

Usurbilgo Udalean udaltzain lanpostua betetzeko oposizio-lehiaketa. Bete beharrekoak: Eskola Graduata, Lehen Mailako Lanbide Heziketa edo antzeko tituluren bat izatea; 3. hizkuntza-eskakizuna izatea eta gutxienez 1,65m-ko garaiera gizonetakoek eta 1,60m-koa emakumezkoek. Izena emateko azken eguna, 20 egun EAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo Usurbilgo Udalerara, Jose Martin Sagardia plaza z/g; tel.: 943 371951; web orria: https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2008/12/17/e0813820.htm.

Lorazain laguntzailea Usurbilgo udalerako

Usurbilgo udalean lorazain laguntzaile lanpostua betetzeko oposizio-lehiaketa. Bete beharrekoak: Eskola ziurtagiria edo baliokidea eta B gidabaimena izatea. Izena emateko azken eguna, 20 egun EAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Informazio gehiago nahi izanez gero, Usurbilgo

GAZTE INFORMAZIOARAKO Bulegoa

Manuel Lekuona kulturetxea • Tel.: 943 376181

Udalera jo dezakezue, Jose Martin Sagardia plaza, z/g; tel.: 943 371951; web orrialdea: https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2008/12/17/e0813820.htm.

Euskararen arduradun lanposturako teknikari bat Oiarzungo udalean

Euskararen Arduradun lanposturako Teknikari bat hautatzeko lehiaketa Oiarzungo Udalean. Bete beharrekoak: Gizarte Zientzietan Lizentziatura-titulua izatea eta euskarako 4. hizkuntza-eskakizuna ere izatea. Izena emateko azken eguna 2008ko abenduaren 26a. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo Oiarzungo udalera (Done Eztebeko Plaza, 1. zenbakia) edo deitu telefono honetara: 943 490142; faxa: 943 491405. Web orrialdea: https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2008/11/20/e0812889.htm.

Gaztegunearen eta gazteen informazioko antenaz arduratzeko zerbitzua kontratatzeko deialdia

Gipuzkoako Foru Aldundia Gizarte Politikako Departamentuak

deituta, Gaztegunearen eta Gazteen Informazioko Antenaz arduratzeko zerbitzua kontratatzeko deialdia. Horretarako azken eguna abenduaren 26a. Informazioa Gipuzkoako Foru Aldundian, Gizarte Politikarako Departamentuan, Txara 2. eraikina, Zarategi pasealekua, 99; tel.: 943 112631; faxa: 943 112621; helbide elektronikoa: info.gizartekintza@gizartekintza.net; web orria: https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2008/12/11/e0813783.htm.

Oinarritzko instalatzaile argiketari ikastaroa langabetuentzat

Oinarritzko instalatzaile argiketari ikastaroa, 210 ordukoa eta praktikak enpresetan. 120 ordu. Ikastaroa 2009ko urtariraren 12an hasiko da eta maiatzaren 22an bukatu. Parte hartzeko langabetua izan behar da eta plazak bete arte dago lekua. Informazioa IES Hernani, Agustín Iturriga-Karmelo Labak ikastetxean, Santa Barbara z/g; tel.: 943 551958 eta 943 551188; faxa: 943 552271; e-maila: jezquerro@hernanibhi.com.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: S5513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com. Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Aurten Santo Tomas feria goizez egingo da Okendon



Talogleek jo ta fuego aritu ziren arratsalde osoa lanean, hirina bukatu arte.



Iaz jendetza bildu zen Okendo plazan Santo Tomas ospatzeko.

Ttakin Kultur Elkarteak aurten ere Santo Tomas feria antolatuko du. Gainera, aurten, igandea izanik, goizez antolatzea erabaki dute. Goizeko 11:00etatik 14:00etara Okendo plazan txistorra eta taloak dastatzeko aukera izango duzue.

Donostiara joan gabe herrian Santo Tomas egunaz gozatze-ko aukera eskaintzen du Ttakin Kultur Elkarteak, igande goizean 11:00etatik aurrera Okendo plazan. "Izan ere,

urteak urtera jende gehiago gerturatzen da jai honetara eta Sagardotegi plaza txikia geratzen hasi da".

Talo postua jarriko dute, nahi duenak talo goxo-goxo eta bero-beroak txistorrekin, txokolatearekin edo gaztarekin jateko; momentuan dandolinean erretako gaztainak jateaz gain, eztarria busti ahal izateko hurbiltzen den guztia-ri Otegi sagardotegiko sagardoa doan banatuko zaio.

Txikienei hain erakarria

zaien txerria ikusgai ere izan- go da.

Hotza astintzeko

Euskalmet-ek, euskal metereologia agentziak, iragarri duenez, igande goizean tenperatura egonkorra izango da, hau da, hotza, baina ateri, hodei gutxi eta haize ahula egongo da. Beraz, hotza astintzeko trikitilariak arituko dira goiza giroten. Aurreko urteetan hasitako bideari jarraituz, erromeria egingo

da. Amalur trikiti taldekoek eta herriko txistulariek girotuko dute, eta Erketzeko erromeri ikastaroko ikasleak arituko dira oinak astintzen. Erromeria erabat irekia izango da eta dantzan aritzea gustatzen zaion edonork parte hartu dezake. Tardean gainera, herriko bertso-eskolako bertsolariak arituko dira kantu librean.

Beraz, igandean, "goiz pasa ederra egiteko aukera paregabea dute herritarrek".

ALBOKA ABESBATZA

Gabonetako kontzertua

Bihar Gabonetako kontzertua eskainiko dute Alboka abesbatzak eta Alboka Txikik, Donostiako Txepetxa abesbatzaren laguntzaz, arratsaldeko 20:30ean Manuel Lekuona kultur etxeko aretoan.

Hainbat herrialdeetako Gabon abestiak entzun ahal-ko dira emanaldian, hala nola, euskal abesti herrikoiak diren *Ator-ator*, *Olentzero*, *Zergatik geldi zera*, *Birgina maite* edo *White Christmas* amerikarra eta ohiko *Adeste Fideles*. •

DANOK KIDE

Gabonetako bi oratorio astelehenean

Danok Kideko Esperientzia Eskolaren IV Topaketan barruan, Fco. Escudero Musika Kontserbatorioko bakarlariek eta abesbatzak, piano, organo eta fagotaren laguntzaz, Heinrich Schützen *Christmas Oratorio* eta Camille Saint Saënsen *Oratorio de Noël* eskainiko dituzte astelehenean, abenduaren 22an, 19:30ean Brigitarren komentuan. •

IKASTAROA

Zura taila Kultur etxean

Manuel Lekuona kultur etxean urtarrilak 13tik ekainak 18ra zura taila ikastaroa antolatuko da.

Astean 5 ordu egingo dituzte astearte eta ostegunetan banatuta eta bi ordu dituzte desberdin eskaintzen dira, bata 15:00etatik 17:30etara eta, bestea, 17:30etatik 20:00etara. Hauetako ordu bakoitzean 12 ikasle egongo dira.

Kultur etxetik jakin arazi digutenez, ikastaroa 15 urte- tik gorako guztiontzat zabalik dago.

Izena emateko epea abenduaren 22an hasi eta urtarrilaren 9ra arte izango da eta lekua Gazteen Informazio- rako Udal Bulegoa (Manuel Lekuona Kultur Etxeko hirugarren solairuan) astelehene- tik ostiralera 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Beharrezko dokumentazioa E.N.A.ren fotokopia, kar- net tamainako argazkia eta behar bezala betetako izen- ematearen fitxa.

Matrikularen zenbatekoa erroldatuentzat 103,70 euro- takoa da eta 172,60 erroldatu- gabentzat.

Ikastaroa

Barre-algarak Muntteri euskaltegian



AEKko Muntteri euskalte- gian, asteazkenean, barrez lehertu ziren. Izan ere, barreterapiako saio batean parte hartzeko aukera izan zuten. Nagore Vazquez AEKra gerturatu zen euskal- tegiko ikasleekin barretera- pia saioa lantzeko. Aurreko hiru saioetan ekimen honek

ikasleen artean izan duen harrera ona ikusita, euskal- tegiko arduradunek Nagoreri berriz deitzea erabaki dute. "Ikasleek ederki pasatzen dute", dio euskaltegiko ira- kasleak. Beroketa eta arnas- keta ariketa batzuk egin ondoren hasi zen hoberena, barre-algarak. •

Jaialdia

Katekesiko haurren Gabonetako jaialdia

Zumaburuko Arantzazuko Amabirjinaren eliza azpiko aretoan katekesiko haurren jaialdia antolatu zen astearte- an. Bertan, antzerkia, solidari- tatea eta haurren ahotsen alaitasuna batu zen guztiei gabon zorionsuak desiratzeko.

Lehenik haurrek *Errege Magoen desagertzea* antze- lana eskaini zuten. Honetan, Gabonen zentzu erreala gogora arazi nahi izan dute,

kontsumismoa alde batera utzirik.

Era berean, duela urte batzue- tatik hona egiten den antzera, proiektu solidario baterako diru- bilketa egin zen. Oraingoan, Gineako herririk den, Batan dagoen umezurtegarako lagun- za izan zen.

Jaialdiarekin bukatzeko, haur guztiek Gabon abestiak kantatu zituzten gitarren laguntzaz. •



Zero Setteren arrakasta Leonen

Abenduaren 27an La Salleko anaien 50. urtemuga ospakizunetan parte hartuko du Eibarren

TXINTXARRI

Zero Sette akordeoi orkestrak ez du atsedenaldirik hartzen. Lehengo asteburuan Leonen arrakasta handia lortu zuten La Venatoria elkarteko aretoan eta hilaren bukaeran, abenduaren 27an, Eibarren La Salleko anaien 50. urtemuga ospakizunetan parte hartuko du.

Bosgarren urtea da Elias Goikourriaren mutilek Leoneko La Venatoria elkartean kontzertua eskaintzen dutena eta horregatik programa desberdina erakutsi larunbateko kontzertuan.

La Venatorian bederatzi abesti eskaini zituen Lasarte-Oriako orkestrak, besteak beste ohikoak diren Rossiniaren *Guillermo Tell* obraren *Ober-tura*, *La boda de Luis Alonso* Jerónimo Giménezaren obra edo Rixenerren *Bagatela*. Hautako bost Leoneko elkartearen aretoan entzun gabekoak gainera, Bizeten *Carmen*, Damaso Perez Pradoren *Mambo nº5* edo Merceroren *Pozik-Txoria saltari* obrak, esate baterako.

Azken honetan ohikoa da Erketzeko bi dantzariren

laguntza izatea, baina Javier Zatarainek adierazi digunez, eszenatokian dantza egiteko lekurik ez zegoenez, orkestrak bakarrik eskaini zuten lana.

Zero Settek eskertza moduan, bi abesti eskaini zituen emanaldiari amaiera emateko bata *Marcha Radetzky* eta bestea, ikusleen ahotsen laguntzaz, *Leoneko ereserkia*.

Kritika

Miguel Angel Nepomuceno, *Diario de Leoneko* musika kritikoak asteleheneko zutabearen zera zioen kontzertuari buruz, "bost urte dira, La Venatoria elkartean txalo zaparrada jasotzen dutena eta ez dago Gabonik Zero Sette akordeoi talde euskaldunak elkarteko aretoa leporaino betetzen duen publiko anitza hunkitzen ez duenik. Inork ez zituen kontzertuak irauten zituen 90 minutuak galdu nahi, hau dantzara bultzatzen eta ezbeharrak ezabatzen dituen eta, era berean, errepertorio herrikoi-ko obra ezagunak dibulgatzen dituen musika kutsakorraz osatua dago".



La Venatoria elkarteko aretoa lepo zegoen Zero Sette akordeoi orkestraren emanaldia ikusteko. Arg: Javier Zatarain

Eta honela jarraitzen zuen, "Elias Goikourriak, bere zuzendariak, badaki hori eta horregatik saio bakoitzean, lanen interpretazioek erakusten dituzten kalitatea eta lana bat datoz berotasun eta freskotasunarekin. Oraingoan, eskainitako programa berritatuaren ugariz osatua zegoen, jot-

zeko zailak diren obrak eta erritmo desberdinez betetako programa. Lanen irakurketek publiko eskertuaren gozamen eta onespina izan zuten..."

Atsedetik ez

Baina hau ez da Lasarte-Oriako orkestrak 2008 urte honetan duen azkeneko emanaldia.

Abenduaren 27an, Eibarrenko Coliseo antzokian La Salleko anaien 50. urtemuga ospakizunetan parte hartuko du akordeoi orkestrak.

Gainera, Zero Sette ez da bakarrik egongo saio horretan, Erketz D.T. eta Amaia Gonzalezen ikasleen laguntza izango baitu. •

Loidi Barren

Aralar kaleko etxeak botatzen



Loidi-Barren eta Sasotako hirigintza proiektuak aurrera darrai. Horren erakusle, Aralar kaleko 2 eta 4 zenbakiko portalak zeuden eraikuntza zaharren eraistea dugu.

Lehengo astean, etxebizitzan geratzen ziren egurrezko eta metalezko elementuak atera zituzten langileek. Herenegun makinak sartu ziren eta, argazkian ikusi daitekeen

bezala, etxe erdia bota dute dagoeneko.

Eraistearen ostean, Loidi-Barren eta Sasotako hirigintza proiektuaren arabera, lur eremu horiek lorategi bihurtuko dira. •

Zentro Zibikoa

Gabonetako Jardunaldiak Emakumeen Zentro Zibikoan

Zentro Zibikoko arduradunek Lasarte-Oriako emakume guztiak gonbidatzen dituzte, antolatu dituzten Gabonetako Jardunaldietan parte hartzera.

Abenduaren 15etik 30era ikasturtean zehar egindako eskulanak, ehoziariak eta jostun lanak ikusgai egongo dira. Gaur bertan, ikasturte bukaerako merienda egingo dute 17:00etan.

Datorren astelehenean, abenduaren 22an, Ormazabal lore-dendakoek mahaia apaintzeko hainbat ideia proposatuko

dituzte. Ikastaroaren prezioa 15 eurotako da eta ikasleek bertan landutakoa etxera eraman ahal izango dute. Hurrengo astelehenean, abenduaren 29an, Mani's ile-apaindegiko Adela makilatzeko ikastaroa eskainiko du goizeko 11:00etatik 12:00ak bitartean.

Jardunaldi hauetan interesa duenak edo Zentro Zibikoari buruzko informazio gehiago nahi duenak 943 363 958 telefono zenbakira deitu dezake bulego orduetan. •



Euskal jantzi tradizionala merke

■ Ttakun Kultur Elkarteak antolatutako jostun ikastaroa atzo bukatu zen
 ■ Iazko Euskal jantzi tradizionalen hitzaldiko gomendioak jarraituz egin dira

TXINTXARRI

Igandean Santo Tomas eguna da eta hurrengo astean Gabonak. Euskal jantzi tradizionala jatzeko garaia dugu, beraz.

Egun, era guztietako jantziak ikus daitezke, iaz Ttakun Kultur Elkarteak jantzi tradizionalari buruzko hitzaldia egin zuen.

Aurtengoan, hitzaldi horretan Olatz Razkinek emandako aholkuek jarraituz jantzi tradizionala egiteko jostun ikastaroaren txanda izan da. Modu merkean bakoitzaren gustuko eta ohi-turak jarraitzen dituen euskal

jantzi tradizional berria izateko aukera eman zaie ikasleei.

Ikastaroa

14 lasarteoriar izan dira Erribera kaleko lehenengoan dagoen lokalean azarotik abendura, astearte eta ostegun arratsaldero bildu direnak.

Bertan, Ione Artola eta Mailu Arrutiren gomendioak jarraituz, gonak, azpiko gonak, txalekoak, zapiak, mantalak eta gizezkoentzat txalekoak egin dituzte.

“Bakoitzak bere gustuko oihalak aukeratu eta erosi ditu,” azaldu digu Mailu Arruti ikastaroaren arduradunak.

Ondoren, Ione Artolaren laguntzaz neurriak hartu, jantzi zatiak moztu eta zati horiek era aproposenean nola josi ikasi dute.

Lan izugarria

Nahiz eta azken eguna atzokoa izan, argazkietan ikus dai-



tekeen bezala, gu bixita egitera joan ginenerako batzuk jantzia bukatua zuten eta besteek azkeneko puntadak ematen ikusi genituen. Guztia

prest, beraz, iganderako.

Mailuk adierazi digunez, “lehenengo asmoa bakoitzak jantziaren zati bat egitea zen arren, taldea ongi moldatu da eta jantzi osoak egin dituzte.”

Ondoren, zera atxiki du, “hala ere, ez dute hemen lana egin soilik, etxean ere lan izugarria egin baitute batzuk.”

“Aipagarria da Ione Artolaren lana. Nabari da irakastera ohitua dagoela. Honek gauzak asko erraztu ditu,” aipatu digu ikastaroko arduradun den Mailu Arrutik.

Era berean, batzuk josten zuten bitartean besteek

jantziaren elementu garrantzitsuren mantala eta zapia egiteko bainika ikastaroa egin dute.

Jarraitzeko asmoa

Giro ezin hobea nabari da taldean eta Ionerekin sortu den harremana hain ona da, jostun ikastaroarekin jarraitzeko asmoa dutela adierazi digute taldekideek.

“Hurrengo urtean honekin jarraitzeko asmoa dute, ikusi beharko orduan egiten dituzten lanak,” adierazi du ikastaroaren arduradunak. •

“ Lehenengo asmoa jantzien zatiak egitea zen arren, ongi moldatu dira eta jantzi osoak egin dituzte



DAKARA

JATETXEA

Especialitatea hostopiletan
 Ogitarteak
 Errazioak
 Entsaladak

Eguneko menua
 astelehenetik ostiraletara

Kale nagusia 8 behe • Lasarte-Oria 20160

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 20

11:00etan, Anaitasuna-Ostadar (Infantilen Ohorezko maila, kopa) Txerloa, Azkoitia.
 15:30etan, Ostadar-Luberri (I. Jubenila, igoera fasea) Michelinen.
 17:15etan, Ostadar-Lengokoak (Kadeteen Ohorezko maila, kopa) Michelinen.
 18:15etan, Kostkas M.B.-Ostadar (II. Erregionala, igoera fasea) Matigoxotegin.

Igandea 21

10:30etan, Urola-Ostadar (Infantil Txiki Kopa) Argixao, Zumarragan.

FUTBOL 8

Larunbata 20

12:00etan, Lasarte BHI-Touring (Infantilak) Michelinen.

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 20

17:15etan, Aldaz H.K.-Lagun Onak (Euskal Liga) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

Michelin edo frontoian
 9:10etan, Okela-Ainhua
 10:00etan, IOB H.K.-Oria Txiki
 10:50etan, ISU Leihoak-Biyona
 11:40etan, Oria Krist.-Ilargi
 12:30etan, Mayi-Obelix
 13:20etan, Buenetxea-Danera
 14:10etan, Siglo XX-Ifel
 15:00etan, Viña del Mar-Izkiña
 15:50etan, Tragoxka-Lurra XXI

Igandea 21

11:00etan, ISU Leihoak-Makax (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

Michelin edo moduloan
 9:10etan, Katanga-Morrison
 10:00etan, Izarra-Jordi

SASKIBALOA

Larunbata 20

18:45etan, Ganbara-Ainhua (Gizezko seniorrak) Alluralden, Andoainean.

PILOTA

Larunbata 20

11:30etan, Intza-Zumaia (Eskuz binaka III. Seniorra) Aginaga.
 16:00etan, Intza 2-Henani 3 (Eskuz banaka infantila I. Urtea) Oriako frontoian.
 16:00etan, Intza I-Behar Zana 3 (Eskuz banaka infantila I. Urtea) Amasako frontoian.
 16:00etan, Añorga I-Intza 3 (Eskuz banaka infantila I. Urtea) Oriako frontoian.
 16:00etan, Intza-Oiarpe I (eskuz banaka alebina 2. Urtea) Añorgako frontoian.

ATLETISMOA

Ostirala 19

18:00etan, LOKEko atletik partaidetza mugabeko probak dituzte Anoetako belodromoan.

Pilotaren festa handia abenduaren 28an Buruntzaldean

Buruntzape elkarteak Buruntzaldeko pilota eskolekin lanean aritzen da, pilotarien teknifikazioa landu eta errendimenduzko entrenamenduk egiteko. Baina ez da guztia lana, abenduaren 28an igandea, Buruntzaldeko pilota jaialdia antolatuko baitu elkarteak.



Lasarte-Orian, Okendoko frontoian infantilek jokatuko dituzte partidak.

500 bat pilotarik, alebinetatik afizionatuetara, jokatuko dituzte Buruntzaldeko herritako frontoi desberdinetan, abenduaren 28an, antolatuko diren pilota partidetan.

Lasarte-Orian infatil mailako eskuzbinakako 10 partida jokatuko dira Okendoko frontoian, Michelineko frontoian PINa egongo baita, eta euria egingo balu, Oriakoan.

Kirolaren ondoren, bazkaria antolatuko dute Hernaniko Otsua-Enea sagardotegian.

Profesionalen partidak

Arratsaldeko 17:30etan Herna-

niko frontoian profesionalen partidak egongo dira. Lehenengo norgehiagokan Saralegi-Oteiza eta Mendizabal I-Argote arituko dira eta bigarrenean, berriz, Olaizola II-Mendizabal II eta Berasaluze VII-Begino.

Partidako sarreren prezio

30 eurotako eserita eta 15 zutik dira eta Lasarte-Orian Gure Etxean eta Aldatzekua taberna eskuratu daitezke.

Jaialdia antolatuko Buruntzaldeko Udalen, pilota eskolen eta Asegarceren laguntza izan du Buruntzape elkarteak. •

Kiroletako oharrak

Intalazioen epe luzeko alokairuak

Kirolen Udal Zerbitzuak Kirol Guneko frontoia, Kiroldegiko pista edo Trinketa 2009 urtean zenbait egun eta ordutan alokatzeko aukera eskaini du.

Abenduaren 21a bitarteko epea ireki da interesatuak udalaren kirol instalazioetako atarian eskera egin dezaten.

Orduak abenduaren 22an 19:00etan Udalaren Kiroldegian egingo den zozketan banatuko dira; eskaera bakoitzari zenbaki bat emango zaio (zozketara bertaratu diren eskatzaileei bakarrik). Abonatuak lehentasuna dute. Zenbakiak atera hala orduak aukeratu dira.

Alokairuaren ordainketa, banku bidez helbideratuko da, bi zatitan: lehenengo zatia urtearen lehenengo seihilekoan eta gainerakoa, bigarren seihilekoan. Ez abonatuak sarrera ordainduko dute, aparte.

Kirolen Zerbitzuak instalazioa behar izanez gero, aste bat lehenago abisua emango die dagokien jokalariei. Kasu horretan ordaindutako dirua itzuliko da.

Igerilekua itxita

Abenduaren 26an, haurrentzako ureta festa dela eta, igerilekua 9:00etatik 12:30etara itxita egongo da, helduentzat.

Udal kirol Instalazioak itxita

Lasarte-Oriako Udal Kirol Instalazioak 2008 eta 2009 urtetarako onartu duen egutegiak agintzen duenez, datozten abenduaren 24, 25 eta 31an eta Urtarrilaren 1etan Udal Kirol Instalazioak itxita egongo dira.

Kiroldegiko bazkideztza kanpaina

Kirolen Udal Zerbitzua, 2009. urteko bazkideztak formalizatze beharrezkoak diren tramiteak egiteko asmoarekin, joan den azaroaz geroztik Udalaren Kirol Instalazioetako bazkideei dagokien jakinerazpena banatzen ari zaie. Erabiltzaileen batek bere gutuna jaso ez badu, komenigarria litzateke lehenbailehen Kiroldegiko bulegora joatea, publikoari zabalik dagoen ordutegian, eta bertan bazkideztaren berrikuntza formalizatzea.

Urtarrilaren 1ean eguneratuta ez dauden bazkideetzi automatikoki baja emango zaie.



Jon Tecedorri omenaldia Zizurkilen

Jon Tecedor lasarteoriarrari omenaldi txikia egin nahi izan diote Zizurkilgo Kirol Astearen. Larunbatean izan zen, Zizurkilgo Intxaur frontoian burutu zen 12 orduz kirolean ekimenaren baitan. Jon Tecedorren senideak Zizurkilera

hurbildu ziren omenaldiarekin bat egitera.

Bertan, Lasarte-Oriako kirolariarekin batera aritzen ziren Zizurkilgo halterofilia taldeko kideek, pultsulariak eta pultsulari ohiek, zein Euskal Herriko Halterofilia talde-

ko kirolariak Jonen omenezko "altxada" bat egin zuten.

Honetaz gain, Naroa Gerestak bere omenezko bertsoak abestu zituen eta Aimar Irigoien eta Telleria anaiak, harria jasotzen, markak hobetzen saiatu ziren. •

Beñat Elizalde Euskadiko txapelkun

Larunbatean Amurrión lehiatu zen Senior mailako Euskadiko Txapelketan eta Beñat Elizalde garaipena lortu zuen hiru konbate irabazi eta gero.

Gorka Aristegi entrenatzaileak jakin arazi digunez, urtarilaren 11an Espainiako Fase Sektorean parte hartuko du sailkapena lortzeko.

Infantilen sailkapena

Bestalde, igandean infantil mailako Gipuzko Txapelketarako klasifikatoria jokatuko zen Hernanin.

LOKEko judoka gazte guztiak primeran aritu ziren eta guztiak sailkapena lortu zuten LOKEko entrenatzaileak azaldu digunez. •

Ureta festa

Abenduaren 26an, Gabonetako ureta festa antolatu da. 9:00etatik 10:00etara 5. eta 4. mailako haurren txanda izango da; 10:15etatik 11:15etara 3. eta 2. mailako haurrena eta 11:30etatik 12:20etara 1. igo eta aurrekoloko haurrena. Igeri egiten jakitea beharrezkoa dela jakin arazi dute Kirol Zerbitzuak. Bazkideek sarrera doan izango dute eta ez bazkideek 3,10 euro ordainduko dituzte. •

Egunero

Erakusketa

PILAR SOBERONEN ikasleen margoak ikusgai. Jalgi kafe-antzikian, egun osoan.



Ostirala, 19

Kontzertua

STAY BLUES taldearen emanaldia Xpression! eta Udaleko Gazteria Sailak antolatuta. Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.



Gabonetako kontzertua

ALBOKA ETA ALBOKA TXIKI abesbatzek Gabonetako kontzertua eskainiko dute Donostiako Txepetxa abesbatzarekin batera. Hainbat herrialdeetako Gabon abestiak entzun ahaliko dira emanaldian. Adibidez: euskal abesti herrikoiak diren *Atorator*, *Olentzero*, *Zergatik geldi zera*, *Birgina maite* edo *White Christmas* amerikarra eta ohiko *Adeste Fideles*.

BIHAR LARUNBATA 20:30EAN
KULTURETXEAN, BIETARA

Antzerkia

"HALA MINTZATU ZAN ZAPPA-TRUSTA" obrarekin dator Ander Lipus & Karabana. Topagune-ko Kultur Errotaren barne. Jalgin, 22:30ean, EUSKARAZ.



Astelehena, 22

Haur parkea

GABONETAKO HAUR PARKEA. Haurrek sarrera doanik dute, helduek euro bat ordainduko dute. Michelingo Udal Kiroldegia, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

BIETARA.

Kontzertua

DANOK KIDEKO IV TOPAKETA MUSIKALEN BARRUAN, Fco. Escudero kontserbatorioko bakarleri eta abesbatzak Gabonetako bi oratorio eskainiko dituzte. Brigitarren komentua, 19:30ean.



Asteartea, 23

Kontzertua

THE UPPER ROOM bikoteak gospel eta espiritual beltzak eskainiko ditu. Sarrera, 3 euro. Kulturetxean, 20:00etan.

Larunbata, 27

Kontzertua

VII. GAU MULTIMUSIKALEAN hainbat kontzertu izango dira Okendon eta zenbait tabernetan. Arratsalde eta gau osoan zehar.

Asteazkena, 31

Dantzaldia

URTE ZAHARREKO FESTA 2009 urtea erritimoarekin hasteko. Sarrera, 3 euro. Kulturetxeko kafetegian, 01:00etatik 05:00etara.

Liburutegiko ordutegia



Manuel Lekuona kulturtxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Gabonetako ordutegia:
24an eta 31n 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik
Abenduaren 25etik 28ra eta
urtarrilaren 1etik 6ra itxita

Esazu irratiko programazioa



Gabonetako oporrak!

Gaur izango da urte honetako azkeneko irratsaioa eta hurrengo urtarilaren 9an izango da. Gurekin berrito izango zaretelakoan, datorren urtera arte!

Oharrak

Zabaleta auzoko Olentzeroa

Azken hogei urteetan bezala, Zabaletako auzokideek, Olentzerorekin batera, abestera aterako dira abenduaren 24ean. Goizeko 10:00etan Antonio Blas plazatik abiatu eta auzotik barrera gabon kantak abestuko dituzte. Horretarako bilerak egingo dira, urtero bezala. Lehenengo gaur izango da, ostirala eta hurrengo astelehenean, abenduaren 22an, 19:30ean. Bilerak auzoko plazan egingo dira.

EHNA tramitazioa

Abenduaren 27a larunbata, EHNA tramitazio eguna izango da Lasarte-Orian. EHNA tramitatu ahal izateko mahaia Okendo plazan ezarriko da, 11:30etatik 13:30etara. Agiria tramitatu nahi duenak 3 argazki, errola agiria eta 15 euro eraman behar dituela gogora arazi nahi dute. Eta, honetaz gain, EHNari buruzko informazioa eta zalantzak ere Okendo plazan bertan argituko dituzte.

Erketz Gabonak

Gabonak direla eta, beste urte batez Erketzeko lagunek prest dituzte ezarriak gabon gauean inguruko baserriak egun seinatu horretan girotzeko. Horregatik urtero bezala, entsaioak antolatu dituzte dena primeran atera dadin. Gaur izango da azkeneko entsaioa Zumaburuko ikastolan, arratsaldeko 20:00etatik aurrera. Kantatzeko gogoia nahi duen orok parte hartu dezake, ume zahar eta gazte eta ez da inon izenik eman behar.

Landaberriko zozketa

Landaberi ikastolako gabonetako jaialdia ospatu zen pasaden larunbatean. Bertan egindako zozketaren zerbaki irabazleak ondorengoak izan dira: argaki kamara digitala, 558 zenbakia; musika ekipoa, 2227 eta MP4, 649 zenbakia-ri egokitu zaio. Zorionak irabazleei!

Urrezko ezteiak

Jose Magariñok eta Paula Jerezek urrezko ezteiak ospatuko dituzte igandean. Ospa-

kizuna abenduaren 21ean, igandean, goizeko 11:30ean Oriako Karmengo Amaren kaperan egingo den elizkizunarekin hasiko dute. Zorionik beroenak bie!

Batxilergoko titulua

2007an Batxilergo ikasketak bukatu zituzten ikasleak, titulua jasotzera pasa daitezkeela jakin arazi nahi dute IES Lasarte-Usurbil BHI institututik.

Pintura klaserik ez Gabonetan

Lasarte-Oria Bizilagunen elkarteak jakinarazi nahi du abenduaren 24, 26, 27, 31 eta urtarilaren 2 eta 3an ez dela pintura eskolarik izango kulturetxea itxita dagoelako.

Aterpea- Eguberritako kanpaina

Abenduaren 1ean hasi eta urtarilaren 6ra bitartean, ez galdu aukera: Aterpea txartelarekin egin zure erosketak. Txartela erabiliz gero, 30 euroko erosketa bonoak lortu ditzakezu Aterpean elkarteko

kide diren dendetan.

2009ko egutegia

Lasarte-Oriako Ingurumene-ko, Merkataritza, Kontsumo eta Sanitateko departamenduak jakinarazi nahi du, dagoeneko eskuragarri dagoela 2009ko egutegia eraikin munizipalean (KIUB, udaletxea, kulturetxea, Villa Mirentxu, kiroldegia). Publikazioak departamenduak duen filsofia adierazten du, gure inguru babestu beharrez mezuaren bitartez. Bertan biltzen dira urtean zehar dauden egun aipagarrienak, gogora araziko digutenak zer egin dezakegun eta egin behar dugun garapen jasagarria lortzeko.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
txintxarri@txintxarri.info
www.txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Badator VII. Multimusikala!

■ Aurten Okendo plazan gune estali bat ipiniko da eta igandean ere kontzertuak izango dira

TXORIMALO

Heldu zaigu Lasarteko gazteon egun handia; urte osoan zehar zain izan ostean, iritsi da azkenean denok espero genuen eguna: abenduaren 27a, egun Multimusikala. Beno, oraingo honetan aste-buru musikala ere dei genietzaioke, izan ere, beritasunez bete baitator aurtengoan Txorimalo Gazte Kolektiboaren urteurren jaialdia. Orain zortzi urte, herrian, gazte esparruaren baitan zeuden gabeziak jabeturik lanari ekin zioten haiek, urtero prestatu dute herriko hainbat tabernatan barrena jaialdi berezi hau, urtetik urtera eman digute lasartearroi, behintzat egun batez musika jaialdi anitz, fresko eta berritzaile batez gozatzeko aukera. Eta aurtengoa ere ez da gutxiago izango.

Gune estalia Okendon

Berritasuna da nagusi VII. edizio honetan, antolatzaileek dioten moduan: "jaialdiari halako duintasun bat eman nahi diogu. Aurreko urteetan egun txukunak antolatu izan ditugu, parte hartze handikoa, festa ederrekoak, baina aurtengoan egitarau ordena-

tuago bat, azpiegitura txukunagoa... eskaini nahi izan ditugu." Berritasun nagusiena kaleko gunearena izango da"; urteroko moduan, herriko hainbat taberne hartuko dute parte jaialdian, zehazki aurtengoan, Udaberri, Sustrai, Jalgi, Xirimiri, Ilargi eta Obelix izango dira. Hauetan, urteroko moduan arratsaldean zehar kontzertu andana izango da, eta gauean berriz disko jartzaileak. Okendon berriz, oraingoan kaleko gunea delako izango da, 225 metro karratuko karpa estalia, eta bertan egun osoan zehar egitarau anitzaz gozatzeko aukera izango dugu. Zehazki, kaleko guneak goizeko 11:30ean izango du irekiera, eta goiz goizetik izango da bertan zertan aritu.

Aipatzekoa da, jaialdian parte hartuko duten talde guztiak egiten dutela bat Copyleft edota Anticopyright planteamenduari, beraz SGAEn moduko elkarteek ez dutela jaialdiarekin inongo harremanik izango. Musika aske eta herrikoaren hautu garbia, horratio!

Berritasunak aipatu ditugu lehen, eta bada beste berritasunik aurtengo edizioan. Izan ere, igandean ere Multimusi-



lazio edizioan, izugarriko arrakasta izan zuen The Txortains taldeak.

kalak izango du egitaraua, Okendoko gune estalian. 28an Okendoko frontoian Buruntzaldeko pilota txapelketa ospatuko da, eta bertan, Multimusikaleko eguerditik hasita pintxoak, sagardo dastaketa, musika herrikoia eta orohar giroa jarriko dituzte pilotariak kemenez joka dezaten.

Arratsaldeko kontzertuaren ostean hainbat sorpresa izango dira, eta igandean ere festa ordu txikitara arte luzatuko dela, musika, barra, festa eta dantza behintzat izango dela.

Nola lagundu

Ez da txantxetako aurtengoan herriko gazteek bota duten erroka. Gabeziak hain nabariak diren gure herri honetan, herriko gazteek honelakoak planteatzeko hutsak poza ematen du. Halere, aipatu digute jaialdia guztiz autokudeatua delarik hainbat eta hainbat diru iteerrari aurre egin behar dietelarik. Horretarako, Kutxako kontu korronte bat eman digute, inork laguntzarik edo eman nahiko balu bertan egin dezan. Era berean, Multimusi-

kaleko cd-a ere herriko tabernetan salgai dagoela gogorazi digute, eta bertako dirua ere jaialdirako izango dela. Kutxako kontu zenbakia hau da: 2101 0048 20 0125573386, inork lagundu nahiko balu jaialdiaren onurarako izango da.

Jendeari azaltzeko deia egiten diote jaialdian parte hartzeko, eta batez ere, musikan era aske eta herriko batean murgiltzeko. Aurrera Multimusikala eta Zorionak Txorimalo! •

Egitaraua

11:30ean kaleko gunearen, karparen irekiera

-Haurrentzat musika eskola. Antolatzaileek hainbat instrumentu jarriko dituzte haurrek musika era kolektiboan sor dezaten. Kitarrak, bateriak, batukadako instrumentuak...denetarik izango da. Edonork beste instrumenturen bat eraman nahiko balu, eraman dezala!

-Graffiti erraldoiaren margoketa ekingo diote Gasteiztik espreski etortzitako artista margolariak. Lientzo erraldoi bat izango dute eskura bertan margotzeko.

-Herri eta bigarren eskuko produktuen azoka. Herri mugimenduetako kideek beren materiala erakutsi eta saltzen izango dira azokan. Era berean, hainbat jendek arropa, musika, elektragailuak eta beste hainbat gauza hel arazi dizkio antolakuntzari bigarren eskuko azoka bat egiteko, eta era guztiakotako produktuak merke-merke izango ditugu bertan erosgai.

-13:30ean Musika Kalejira hasiko da. Herria musikaz betetzeko da ekimen honen helburua, musika era herriko batean adieraztea. Antolakuntzak espreski aipatu digu dei egiteko herriko musikari bertara nahi adina instrumentuarekin azaltzeko, denon artean musika herrikoia eta sorkuntza askearen aldarria ozen adieraz dezagun. "Kultura luxu bada, bizitzea delitu!; Sorkuntza beti aske!"

-14:30ean herri bazkaria izango da. Sekulako babarrun jana prestatu dute Txorimalokoek, bere sakramentu eta guzti, txorixo, saiheski, aza eta dena delakoak ez dira faltako. Sagardo eta ardoz ongi bustitako bazkari honek arroz esnea izango du postretzat. Txartelak 10 eurotan izango dira salgai lehen aipatutako tabernetan, eta txartelak ostirala,

26rako erosi beharko dira.

-16:30ean Kontzertua. Apurka taldearen musika goxoa entzun ahal izango dugu. Lasarten hainbat jarraitzaile dituen talde honek, gurea aukeratu du bere azken aurreko kontzertua emateko, taldea uztekoan baitira. Beraz, apurkatarrak zuzenean ikusteko azkenetarikoa aukera izango duzue bertan.

-17:30ean Jalgi kafe-antzokian kontzertuen irekiera. Bertan, hiru talderen eskaintza gozatu ahalko dugu:

-Yaw donostiarak, Piraten maketa lehiaketan 2. postua irabazi zutenak.

- Sortuz aguraindarrak, Agurainen euskara hutsez abesten duen historiako lehen taldea.

-Garagardo Gura gasteiztarak, zortzi kideko talde honek ska erritmoz alaituko du arratsaldea.

-18:00etan Sustrai tabernan bi emanaldi izango ditugu: **Detritos** eta **Free Birds**.

-18:30ean Okendoko gunean Bertso Rap saioa izango dugu. Bertan, Barakaldoko **121 Crew** rap taldea eta hainbat bertsolarik parte hartuko dute, hala nola, Muñoa edo Silveira betiko ohitura eta joera berrien arteko elkartrukea eginez.

-19:00etan Obelix tabernan bi talde izango ditugu: **The Last Strength** arrasatearrak eta **The Crackers** beasaindarrak.

-19:30ean Xirimiri elkarte beste bi emanaldi: **Ostikua Potroten** lasartearrak eta **Gargantas** Desgarradas Andoain, ordiziarrak.

-Arratsalde osoan Ilargi tabernan **Big Time Sound System** lasartearrek beren eritmo dantzagarriak eskainiko dizkigute.

-20:00etan Udaberri tabernan Tuestate de Tranks + lagunak

-Arratsaldeko 20:30etatik aurrera. Okendon goxogoxo afaltzeko aukera izango da, **otartekoak** izango baitira Karpako jantokian.

-22:30ak aldera, gaueko kontzertuei hasiera emango diete Txorimalokoek. Bertan 3 talde entzuteko aukera izango dugu, soinu txukun eta agertoki txukun batean:

-Musikberberena gasteiztarak. Izenak dioen moduan, eromeria da talde honen esparrua, eta 80.hamarkadako punk-ean oinarritutako bertsio eta kantuekin dantzan jarriko dute plazan dagoen jendea.

-Hurto lakabetarrak. Hirugarren aldia du talde honek Lasarte aldean, lehenengo Kamioi-Rockean eman ziguten emanaldi gogoangarriaren ostean Okendo berotzeko gogoz izango dira berriro ere Nafarroako lau gazte hauek.

-Azkenik, Iruñeako **Skatu** izango ditugu. Skakalipso doinu beroez goizaldera arte luzatuko dute festa, tronpeta, tronboi, gitarrak etab.

-Goizeko 3:00aldera, GRASSMANN disko jartzaileak emango dio amaiera festari, goizeko 4:00ak arte.

-Jalgin gau osoan zehar Aritz Sound System eritmo dantzagarriekin jo ta su aritzeko aukera izango du, parrandarako gogoz denak

2008ko abenduaren 28, igandea

-Goizean, Erromeria.

-Arratsaldeko 18:00etan Makulu Ken taldeaz gozatzeko parada izango dugu Okendoko gune estalian, jaiari amaiera emateko.